

Eguerdi on eta mila esker agerraldi honetara hurbildu zareten guztioi. Gaur, Artziniegan elkartu gara Aiaraldeko mugimendu, sektore eta eragile ezberdinetako kide Herri Akordioa aurkezteko. Akordio honen bidez, zaintza sistema publiko-komunitario berri baten beharra plazaratu, eta egungo zaintza erregimen sostengaitzaren irakurketa konpartitu bat egin nahi dugu.

Zaintza, bizimodu duina eraikitzeke oinarria da: ez da unean uneko zerbait, zaintza bizitzako une eta eremu guztietan beharrezkoa da. Gure gorputzen, komunitateen eta lurraren iraunkortasunerako ezinbestekoa da; hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunaraztekoeta kudeatzeko beharrezkoa.

Euskal Herrian, egun, zaintzarako zerbitzuak gero eta pribatizatuago daude. Azken 20 urteetan, euskal instituzioetatik sistematikoki pribatizatu dira ahal izan diren zaintza-zerbitzu guztiak, enpresa lagunen eskuetan jartzeko eta horietatik milioi askotako etekinak ateratzeko, zaintzaren kalitatearen eta langileen lan-baldintzen kontura.

Familia heteropatriarkala erdigunean jartzen duten politikak erabiltzen ari dira zerbitzu horiek ez garatzeko; berriro ere, zaintza lanak emakumeon gain daude, eta sarritan emakume migratu arrazializatuengan. Sistema kapitalista eta heteropatriarkala izateaz gain, arrazista baita. Arduradun horiek izen abizenak dituzte eta gure bizitzen gainera kapitala jarri dute.

Guk zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; hau da, pertsona guztiek, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaintzeko eta jasotzeko duten eskubidearen alde egin nahi dugu.

Zaintza lanen egungo antolamendu soziala eraldatu nahi dugu, eta horrek dakar bi planotan pentsatzea eta aldaketak eragitea:

Alde batetik, premiei erantzutea, hau da, egun, prekarioen eta kolapsatuen dauden egoerei aurre egitea.

Bestetik, epe luzera begiratzea eta bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial bat imajinatzea eta definitzea, sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gaindituko dituen.

Greba Feminista Orokorra Euskal Herriko Mugimendu Feministatik abiatu eta herri mugimendu, sektore eta eragile gehiagorekin elkarlanean josten ari garen prozesua da, horren isla da Herri Akordio hau. Grebara eramango ditugun epe luzeko zein epe motzeko aldarrikapenak bildu ditugu. Mugimendu Feministatik aldarrikatzen dugun Herri eredurantz urratsak emateko oinarri gisa ulertzen dugu Herri Akordioa, mugimendu sozial eta sindikalekin batera adostutako akordioa.

Hemen jaso ditugu beraz, momentuz bildu ditugun aldarrikapenak.

Epe laburrera markatzen ditugun lehentasunak, hauek dira:

1. Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea.
2. Zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea.
3. Zaintza zerbitzuen privatizazioa amaitzea.
4. Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea.
5. Atzeritartasun legea bertan behera uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.
6. Erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea.
7. Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.
8. Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.
9. Etxeko langileei gutxieneko soldatetik gorako lansaria ezartzea.
10. Zaintza sektoreko langileen lan baldintzak hobetzea.
11. Zaintzaileei laguntzeko sareak sortzea.
12. Zaintzeko denborak bermatzea: lanaldia murriztu soldata txikitu gabe.
13. Gizonak interpelatzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura har dezaten.
14. Zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.
15. Zaintza lanak transbersalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.

16. Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1080 eurokoak gutxienez.

17. Agroekologia babestea eta sustatzea.

18. Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.

Eta epe luzera markatzen ditugun lehentasunak, hauxek dira:

1. Zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzea: aldaketa kultural handi bat eskatzen du eta transbertsalki momentu oro landu behar da (zaintzaren kulturaren kontzeptua jorratu eta zaintzen politizazioa zein kontzientzia bultzatu, familia heteronuklearra suntsitu, gizonei ardura exijitu, hezkidetzak sustatu eta zaintzan oinarritutako eredu pedagogikoa garatu).

2. Lanaren banaketa sexual eta arrazista amaitzea.

3. Herri antolaketa feminista bat garatzea: espazioen diseinua, denboraren erabilera eta hirigintza -etxebizitza komunitarioak- eraldatu, elikadura burujabetza bultzatu, eta horren bidez hirien eta landa eremuaren arteko harremanak eraldatu.

4. Arrazakeriaren eta biolentzia instituzionalaren aurka borrokatzea.

5. Herri boterea eta gobernantza eredu berriak eraikitzea.

Horiek dira orain arte jasotako eta adostutako aldarrikapenak. Bide honetan, funtsezkoa izango da pedagogia feministetatik, gure subjektibotasunean aldaketa sakonak sustatzea.

Zaintzekiko konpromisoak nahiz erantzukizunak hartu behar dira, eta lanaren banaketa sexual eta arrazista desegin. Zaintza, premia eta eskubide kolektibo gisa hartuta, bizitza osoan zehar.

Horregatik, erantzukizuna eta konpromisoa exijitzen diegu dagokien arduradun politikoei.

Egoera hau sostengaitza da horregatik, azaroaren 30ean greba egingo dugu Euskal Herrian, herriz herri eta asanbladaz asanblada ari gara antolatzen, zaintza sistema publikoa definitzen eta gure bizitzak politizatzen. Denon bizitzak erdigunean jartzeko prozesua da hau eta horri ekingo diogu.

Zaintza eskubide kolektiboaren alde!

Azaroaren 30ean GREBA FEMINISTA OROKORRA!

Kaixo y gracias a todas las que os habéis acercado hoy. Nos hemos juntado en Artziniega para presentar el Acuerdo Popular a los diferentes movimientos, sectores y agentes de Aiaraldea. Con este acuerdo queremos hacer pública la necesidad de un nuevo sistema de cuidados público y comunitario, y hacer una lectura compartida del actual régimen de cuidados, el cual es insostenible.

El cuidado es la base para construir una vida digna, no es algo puntual, el cuidado es necesario en todos los momentos y ámbitos de la vida. Es imprescindible para la sostenibilidad de nuestros cuerpos, comunidades y de la tierra, es decir, para la conservación y gestión de la vida, el bienestar y la salud.

En Euskal Herria los servicios de cuidados están cada vez más privatizados. En los últimos 20 años, las instituciones vascas han privatizado sistemáticamente todos los servicios de cuidados posibles, poniéndolos a disposición de “empresas amigas”, y sacando millones de beneficios, a costa de la calidad del servicio y de las condiciones laborales de las trabajadoras.

Se están fomentando políticas que ponen en el centro a la familia heteropatriarcal para no tener que desarrollar esos servicios; y de nuevo, las tareas de cuidado recaen sobre las mujeres y a menudo, sobre las mujeres migradas racializadas. Además de ser un sistema capitalista y heteropatriarcal, es un sistema racista. Los responsables de que esto ocurra tienen nombres y apellidos, y han puesto al capital por encima de nuestras vidas.

Nosotras queremos apostar por el derecho colectivo al cuidado, es decir, por el derecho de todas las personas a ofrecer y recibir un cuidado digno durante toda la vida, con libertad y compromiso.

Pretendemos transformar la actual organización social de los trabajos de cuidados, lo que implica pensar en dos planos y provocar cambios:

- Por un lado, responder a las necesidades más urgentes, es decir, hacer frente a las situaciones actualmente más precarias y colapsadas.
- Por otro lado, mirar a largo plazo e imaginar y definir un sistema social que ponga la vida en el centro y que supere al sistema capitalista, racista y heteropatriarcal.

La Huelga Feminista General es un proceso que nace del Movimiento Feminista de Euskal Herria, pero que se está tejiendo con otros movimientos populares, otros sectores y agentes sociales.

De este proceso se creará un acuerdo consensuado con los movimientos sociales y sindicales, ya que entendemos que el Acuerdo Popular es la base para dar pasos hacia el modelo de País que reivindicamos desde el Movimiento Feminista.

Hasta ahora hemos recopilado y acordado una serie de reivindicaciones, tanto a largo plazo como a corto plazo, y estas son algunas de las que llevaremos a la huelga.

Las prioridades que marcamos a corto plazo son:

1. Reconocer y garantizar la universalidad del “cuidado” como un derecho.
2. Fortalecer y desarrollar el sistema público de cuidados.
3. Acabar con la privatización de los servicios de cuidados.
4. Potenciar y desarrollar el servicio de ayuda a domicilio.
5. Suspender la ley de extranjería y, mientras tanto, regularizar a todo el personal de cuidados.
6. El acceso universal al derecho de empadronamiento.
7. Eliminar el régimen especial para las empleadas del hogar.
8. Incluir al empleo del hogar en el régimen general de trabajo: mediante la ratificación íntegra del Convenio 189 de la Organización Internacional del Trabajo.
9. Establecer para las empleadas del hogar un sueldo por encima del salario mínimo.
10. Mejorar las condiciones laborales de las trabajadoras del sector de cuidados.
11. Crear redes de apoyo a personas cuidadoras.
12. Garantizar tiempos suficientes para el cuidado en todos los sectores laborales: posibilitando reducciones de jornada sin reducción salarial.
13. Interpelar a los hombres para que renuncien al privilegio de no cuidar y se responsabilicen de las tareas de cuidado.
14. Ampliar los permisos de conciliación.

15. Trabajar transversalmente las tareas de cuidado en educación, sanidad y el ámbito laboral, entre otros.
16. Establecer pensiones dignas para todas las personas, con un importe mínimo de 1080 euros.
17. Proteger y fomentar la agroecología: apoyando al mundo rural y respetando la naturaleza.
18. Garantizar el derecho a la vivienda: influyendo en el mercado.

Y estas son las reivindicaciones que marcamos a largo plazo:

1. Desarrollar un sistema de cuidados público y comunitario, lo que requerirá de un cambio cultural importante, abordando, transversalmente y en todo momento, el concepto de “cuidado colectivo”.

Para ello, se necesitará la politización y la concienciación del cuidado, desmontando el concepto de familia heteronuclear, exigiendo responsabilidad a los hombres, fomentando la educación compartida y desarrollando un modelo pedagógico basado en el cuidado.

2. Acabar con la división sexual y racista del trabajo.

3. Establecer una estructura social feminista: mediante el diseño de espacios, el uso del tiempo y la transformación del urbanismo, por ejemplo, con viviendas comunitarias.

4. Fomentar el ecofeminismo: mediante la promoción de la soberanía alimentaria y la mejora de las relaciones entre las ciudades y el medio rural.

5. Luchar contra el racismo y la violencia institucional.

6. Construir nuevos modelos de poder popular y gobernanza.

En este camino será fundamental, desde las ideologías feministas, promover cambios profundos en nuestra manera de entender el mundo. Hay que asumir compromisos y responsabilidades con los cuidados, considerando el “cuidar y ser cuidada” como una necesidad y un derecho compartido a lo largo de toda la vida.

También exigimos responsabilidad y compromiso a los correspondientes responsables políticos.

Esta situación es insostenible. La crisis de cuidados es evidente.

Por ello, el 30 de noviembre vamos a hacer huelga en Euskal Herria, y para ello, estamos organizándonos pueblo a pueblo y asamblea a asamblea, definiendo un sistema público de cuidados y politizando nuestras vidas, sí, porque lo personal es político.

Este proceso pondrá las vidas de todas las personas en el centro.

¡Por el derecho colectivo al cuidado!

¡El 30 de noviembre HUELGA FEMINISTA GENERAL!